

Haurtzaro Ikastolako Aldizkaria

TXINPART

1999 Urtarrila-Martxoa - 13. Zenbakia



HAURTZARO IKASTOLA



DENON
ESKURA



**HAURTZARO
IKASTOLA**

**MATRIKULAZIO EPEA
ZABALIK**

urtarrilaren 29tik aurrera

Bulegoko ordutegia: 8-14 eta 14.30-19.30

Tel. 943 491659 - 943 492212

E-mail: oiartzun@ikastola.net



HAURTZARO INFORMATZEN

HIRU HILABETEKOKO IRTEERAK
OTSAILA FESTAZ BETERIK
KUKUBILTZO
GURASO OHARRA
PARTZUERGOA
OIARTZO IRTEERAK
4.MAILA UDALETXEAN
ITUREN
MENDI TALDEA



GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAKETA
GURASOEI EGINDAKO INKESTA
KASKETAK-HASARREAK-MUGAK



GU ERE KAZETARI

PELLO AÑORGARI ELKARRIZKETA
OIARTZUNGO K.E.KO 1. KADETEAK
"DESZENSON"
OLATU IZUGARRIAK
OIARTZUNGO AITON-AMONAK NASARE-
KIN EGUZKIRANTZ



HATZAK BETE LAN

ARTE LANA
FAG
HARIZKO ERAIKUNTZAK
INGELERA (MIREN AND KEPA)
1GO MAILA. AUTOBIOGRAFIA
IBILALDI TURISTIKOAK
SUHILTZAILE LANETAN



NAHASTE BORRASTE

EZBERDINTASUNAK 1
EZBERDINTASUNAK 2
AURKITU ETA BOROBILDU
KONTAKTUAK
JOLASAK 1
JOLASAK 2
KOMIKIAK
HIZKI ZOPA



HAURTZARO INFORMATZEN

4

2.HIRUHILABETEKO IRTEERAK

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
Haur Hezkuntza			
HH 1	Apirila	Zumaiara	Zuloaga museoa ikustatzera
HH 2	Apirila	Hondarribira	Gaiarekin lotua
HH 3	Otsailan	Suhiltzaileen parkera	Gaiarekin lotua
L H 1. eta 2. maila			
LH 2.	Martxoak 16	Irunara	Bide heziketa
LH 2.	Martxoak 18	Azpeitira	Garraioen ezagupena
LH 3. eta 4. maila			
L.H. 3.4.	Otsailak 1	Ituren	Euskal ihauteria ezagutu
L.H. 3.4.	Otsailak 4	Oiartzun Sta Ageda	Euskal tradizioak mantentzea
LH 5. eta 6. maila			
L.H. 5.	Otsailak 4	Oiartzun Sta Ageda	Euskal tradizioak mantentzea
L.H. 5.	Martxoak 4	Guggeheim Gernika	Euskal Herriko alderdi politiko/ fisiko/kulturala ezagutzea
L.H. 6.	Otsailak 4	Oiartzun Sta Ageda	Euskal tradizioak mantentzea
L.H. 6.	Martxoa	Euskaldunon Egunkaria	Gaiaren praktikotasuna
L.H. 6.	Martxoa	"El Diario Vasco" eta "Cristina Enea" parkea	Gaiaren praktikotasuna

HAURTZARO INFORMATZEN



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1.zikloa	Urtarrilak 26	Oreretara	"La niña de tus sueños" pelikula ikustatzea
1.zikloa	Otsailak 4	Oiartzun Sta Ageda	Euskal tradizioak mantentzea
1.zikloa	Otsailak 6	Herriko azoka	Herriko ekintzetan partehartzea
1.zikloa	Otsailak 25	Ikastola	Matematika: Jaime Garzia Kalkulo eta memoria estrategiak
1.zikloa	Otsailak 25	Donostia	Antzerkia ingelesez: entzumena-ulermena
1.zikloa	Martxoak 4	Orereta	Antzerki topaketa: Ahozko hizkuntzaren lanketa
2. zikloa			
DBH 3	Urtarrilak 26	Oreretara	"La niña de tus sueños" pelikula ikustatzea
DBH 3	Otsailak 25	Ikastola	Matematika: Jaime Garzia Kalkulo eta memoria estrategiak
DBH 3	Martxoak 22	Ikastola	Gotzon Garaten bidez Euskal literatura landu
DBH 3	Martxoak 6	Herriko azoka	Herriko ekintzetan partehartzea
DBH 4	Urtarrilak 18tik 22ra	Ikastolan	Edusex: heziketa afektibo-sexuala
DBH 4	Otsailak 20	Oiartzun	Su berria herriko ohitura zaharren berpizketa
DBH 4	Martxoak 2	Ikastola	Orientazio bokazionala hitzaldia
DBH 4	Martxoak 4	Bilbo	Guggeheim
Oiartzo			
Batxil. 1-2	Urtarrilaren 28tik 29ra	Astun	Eskiatzera
Batxil. 1	Martxoak 2	Orereta	"Emakumeak: mundu berri bat erditzen" Erakusketa
Batxil. 2	Martxoan zehar	Leioa Deustu EUTG	Fakultate desberdinak ezagutzera
Batxil. 2	Urtarrilak 27	Ikastolan	Poesia emanaldia



HAURTZARO INFORMATZEN

OTSAILA FESTAZ BETERIK



Otsaila festaz beterik zetorrela konturatu ginen. Aste berean Kandelaria eguna, San Blas eta Santa Ageda izan genituen; horien ondoren berriz, Ihauteiak.

Kandelerio egunarekin lotutako esaera zaharra gogoratu genuen eta San Blas eguneko opilak dastatzeko aukera ere izan genuen. Opilak gure mailako haur baten aitak, Jesusek, egin zituen, baita goxoak egin ere!



En febrero tuvimos la oportunidad de recordar algunas fiestas de tradición popular y de degustar las tortas de San Blas que elaboró para nosotros Jesús, padre de un niño de nuestro curso. Por cierto, ¡estaban riquísimas!

H.H.2



HAURTZARO INFORMATZEN

KUKUBILT XO ETA OSKORRI ELORSORO KIROLDEGIAN

Urtarrilaren 31n, Elorsoro kiroldegian OSKORRI musika taldeak eta KUKUBILT XO antzerki konpainiak "Marijan kanta zan" izeneko ikuskizuna eskaini zuten.


"MARIJANE KANTA ZAN" espektakulu autentiko, herrikoi eta sinesgarria da, abesti xamurrak eta irudimenez beteriko haurren kristalezko mundu horri zuzenduta, hain zuzen ere.

Pertsonaiak otsoa, katua, sagua, xori maitagarriak, begiko txerritxua, "coco" gaiztoa, pinpilipausa xoragarria, edo lakrikur marigorringoa... Joko, poesia, dantza eta 24 abestiren bidez haurra sentimenduz beteriko mundu fantastiko batera eramaten dute.

Marijane Minaberry, Nafarroa Beherean jaiotako emakume idazlea da. Hasiera hasieratik begiak haurrengan jarriarik eraiki du eskritore nafar honek bere obra osoa: "Mari Gorri" (1961), "Itxulingo Andereak" (1963), "Xoria kantari" (1965), "Antzerkia ikastetxean" (1993) dira poesia, ipuin nahiz teatroan, beti ere haurrentzat, argitaratu dituen lanak. Halaber, eta materiale pedagogiko gisa, baditu beste makina bat lan ere, fotokopiaz, Iparraldeko Ikastoletan bereziki, erruz zabaldu direnak.

Esan bezala, espektakulu honetan, den-denok barruan daramagun umeari egiten diote keinu irribartsu eta jostaria. Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan aurkeztutako ikuskizun honetan kanta, ipuin, dantza, fantasia eta jolasak tartekatzen dira. Beraz, haur eta gaztetxoentzat aukera-aukerakoa da, baina baita helduontzat ere. Oskorri taldekoek Kukubiltxo teatro taldearekin batera espektakulu ikusgarri eta erakargarria bihurtu zuten. Zenbait kantu eszenifikatu zituzten bertan eta beste zenbait joku eta dantza bilakatu ziren publikoaren laguntzaz.

Jaialdi hau Ugaldetxo Kultur taldeak antolatu baldin bazuen ere, Oiartzungo hiru Haur Eskolak eta Haurtzaro Ikastola izan ziren laguntzaileak.



El pasado 31 de enero pudimos gozar de la actuación del grupo musical OSKORRI y de la compañía teatral KUKUBILT XO con el trabajo "Marijan Kanta zan", festival organizado por Ugaldetxo Kultur Taldea con la ayuda de la Ikastola y las tres Escuelas Infantiles, en el polideportivo Elorsoro.

L@s que asistimos pudimos comprobar que fue un espectáculo auténtico y popular lleno de canciones cargadas de creatividad e imaginación para llegar a ese mundo de cristal como es el de l@s niñ@s.

Personajes como el lobo, el gato, el ratón, los cariñosos pájaros, el "coco" malo, la mariposa maravillosa... jugaron entre todos nosotros. Juegos, poesía, danza, que junto a 24 hermosas canciones nos llevaron a ese mundo fantástico lleno de sentimientos. Un espectáculo irrepetible.



HAURTZARO INFORMATZEN

OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA DAGOENeko MARTXAN

Orain dela bi urte eman zitzaion hasiera Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren proiektua gauzatzeari. Apustu berri honi ekitea erabaki zuten Oiartzungo Udalak eta herriko Hezkuntza komunitateko hiru Haur Eskolek eta Haurtzaro Ikastolak.

Bi urte hauetan arlo juridikoa, ekonomikoa eta akademiko-laborala lantzen aritu gara. Ez da batere proiektu erraza izan baina une honetan proiektua gauzatzeko tenorea iritsi zaigula esan daiteke.

Hiru Haur Eskolak eta Haurtzaro Ikastola, Udalaren laguntzaz batzearekin, aldaketa batzuk etorriko dira 0-18 urte bitarteko hezkuntza eskaintza honetan. Hona hemen zehaztapen nagusienak:

Arlo juridikoari buruz, Oiartzungo Udala eta Haurtzaro Ikastolaren artean partzuergo bat sortu da. Partzuergo honen bitartez Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) kudeaketa bideratzeko aukera egokiena ikusten da.

0-3ko zikloan, orain arte Oiartzunen hiru Haur Eskola aritu dira lanean: Iturburu, Udaleko Haur Eskola eta Koikile eta Ttipi-Ttapa Haur Eskola pribatuak. Bateratze prozesu honekin, hiru haur-eskolek bat egin dute; beraien urtetako esperientzia batu dute, curriculum berdina osatuz 0-3 guztirako.

Eskainiko duten ordutegia goizeko 7,30etatik, arratsaldeko 5ak bitartekoa izango da. Nolanahi ere, 2 urtekoentzat beste aukera batzuk ere eskainiko dituzte: goizez bakarrik (9etatik 12etara), edota goizez eta arratsaldez (9-12 eta 14,30-16,30)

Kokapen fisikoan ere aldaketak egingo dira. Epe hurbilerako dugun apustua egotza berri eta bakar bat eraikitzea da, Haurtzaro Ikastolako atzeko aldean dagoen espazioan, baina bien bitartean modu honetara moldatu ditugu dauzkagun egoitzak: 0-2 urteko haurrak Karrikako Iturburu eta Iturriotzeko Kokile Haur Eskoletan egon-

go dira. 2-3 urte bitartekoak, berriz, Haurtzaro Ikastolako lokaletan, bereziki haur hauentzat prestatzen ari garen geletan.

Ziklo honetako irakasleei dagokienez, orain arte hiru Haur Eskoletan aritu direnak izango dira aurrerantzean ere.

0-2 urteko kuotak ere bateratu egin dira eta denontzat 25.000 pezetakoa izango da. 2-3 urteko irakaskuntza-kuota, berriz, gaur egun ikastolan aplikatzen dena izango da, 1.750 pezeta, hain zuzen ere.

3-16 etapan eta Udal Osoaren erabakia- ren ondorioz, aurtengo ikasturtetik aurrera Haurtzaro Ikastolako ikasle oiartzuarrei kuoten %25eko subentzioa ematen zaie, beti ere ikasleak herrian erroldatuak badaude. Diru-laguntza hau gurasoei ematen zaie, datuen gestioa ikastolako administrazioak burutuz. Datorren ikasturtean, kuoten %50a hartuko luke bere gain Udalak, piskanaka-piskanaka irakaskuntza-kuota desagertu arte.

Proiektu berri honetan, Haurtzaro Ikastolak eta hiru Haur Eskolak urte askotako esperientzia da elkartzen dutena. Elkartze honi esker, hemendik aurrera lau heziketa etapa eskaintzeko gai izango da Haurtzaro Ikastola: Haur Hezkuntza lehen zikloa (0-3 urte) eta bigarren zikloa (3-6 urte); Lehen Hezkuntza (6-12 urte); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) eta Batxilergoa edo DBHO (16-18 urte). Modu honetan 0-18 urte bitarteko eskaintza akademikoa egiten duen proiektu bat izango du Oiartzungo herriak.

Euskal Herria mailan esperientzia baka- rrenetako bat da hau, 0-3 zikloa puskatu gabe errespetatu eta 3-18 urte bitarteko proiektu batean txertatzea, alegia. Espe- rientzia aurrerakoa da, dudarik gabe. Askok beraientzat amesten duten egoera ideala, gaur egun Oiartzungo gurasoen eskura jartzen dugu proiektuko partaideek: Haurtzaro ikastolak eta Iturburu, Ttipi-ttapa eta Koikile Haur Eskolek.

HAURTZARO INFORMATZEN



Hace dos años se comenzó a gestionar el Consorcio denominado "Oiartzungo Udal Ikastola", que ha traído consigo la unificación de Haurtzaro Ikastola, Iturburu Udal Haur Eskola, Koikile H. E. y Ttipi-Ttapa H.E. bajo el patrocinio del Ayuntamiento. Se trata de un proyecto novedoso en Euskal Herria, ya que se respeta el ciclo de 0-3 años y a la vez se integra en el proyecto de la Ikastola de 3-18 años.

En el ciclo de 0-3 años, se unifican las tres Escuelas Infantiles que hasta ahora existían en Oiartzun. Se juntan así muchos años de experiencia; en suma, son proyectos muy bien experimentados en este primer ciclo de Ed. Infantil, que se funden en este proyecto novedoso.

OHARRA GURASOENTZAT

Jantokian bazkaltzen geratzen diren ikasleak egunen batean beherakoarekin edo gastroenteritis dutelako gaixorik baldin badaude, janari lehorgarria jan beharrean aurkituz gero, beharrezkoa da goizean lehenengo orduan, hau da, 10,00ak baino lehen, seme-alabaren egoeraren berri idazkaritzan adieraztea, bai telefonoz deituz edo baita idatzitako ohar baten bidez ere. Horrela, sukaldariek menu berezia prestatzeko denbora izango dute.

Kasu hauetan, ondorengo menua prestatuko genuke:

1. platera: arroza.
2. platera: tortila (edo urdaiazpiko egosia haur txikiei).



La escuela infantil de 0-3 años iniciará su actividad a las 7,30 h. de la mañana, y el horario de cierre será a las 17,00 h. También habrá otras opciones: sólo por la mañana, o mañana y tarde.

El objetivo a medio plazo es construir un edificio independiente para esta etapa educativa. Mientras tanto, la ubicación física se hará en Iturriotz y Karrika (0-2 años), y en la Ikastola (2-3 años).

La cuota mensual será de 25.000 pts para 0-2 años y en el caso de 2-3 años la cuota escolar será de 1.750 pts el próximo curso escolar.

Para la etapa de 3-16 años, el Ayuntamiento se ha comprometido a subvencionar la cuota escolar. Así durante este curso subvenciona ya el 25%; el próximo curso será el 50%, y así sucesivamente hasta que desaparezca la cuota escolar.

Por último, en la etapa de 16-18 años, l@s alumn@s del Bachillerato tendrán la oportunidad de recibir la beca que da el Ayuntamiento, que supone el 50% de la cuota escolar.

Postrea: menbriltoa, sagarra, gazta edo yogurra.

En caso de que un-a alumn@ que asiste al comedor tenga problemas estomacales porque ande ligero de cuerpo o tenga gastroenteritis y necesite una dieta astringente, tenéis que avisarnos antes de las 10,00 h. de la mañana para que las cocineras preparen el siguiente menú:

1^{er} plato: arroz.

2^o plato: tortilla (o jamón york para l@s más pequeñ@s).

Postre: membrillo, manzana, queso o yogur.



HAURTZARO INFORMATZEN

OIARTZOKO GURE IKASLEEN IRTEERAK

ESKIEN GAINEAN ELURRETAN

Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak, urtarrilaren 29a jai genuela baliatuz, Astunera eskiatzera joan giren ikastolak antolatutako irteeran. 28an goizean goiz autobusa hartu eta Jakara iritsitakoan eskiak alokatu ondoren, 11ak alderako pistetan ginen jada, esperientzia berri hari ekiteko prest. Hasieran bakoitzak bere aldetik praktikatu nahi izan genuen apur bat, eta pixka batean zutik irauten ikasi ondoren monitorean ikastaroa egiteko aukera izan genuen. Nahiz eta gustura genbiltzan, ekaitza nagusitu zen eta pistak ohi baino lehenago itxi behar izan zituztenez, alde egin beharrean aurkitu ginen. Hala ere, primeran pasatu genuen eta denak osorik itzuli ginenez, datorren urtean berriro joateko ametsetan gara dagoeneko.



Nuestr@s alumn@s de bachiller de Oiartzo esquiando en Astún, en el viaje organizado por la ikastola el pasado enero.

POESIA ENTZUNALDIA

Urtarrilaren 27an "Lubaki banda" izan zen taldeko bi poeta gazte etorri zitzaizkigun Oiartzo ikastolara batxilergoko 2. mailako ikasleoi poesia emanaldi bat eskaintzera. Bi gazteek beren olerkiak idazten dituzten arren, kasu honetan euskal olerkigintzaren historiako garai bakoitzetik idazle batzuk aukeratu eta haien poemak irakurri zizkiguten. Oso ordu atsegina izan zen eta nahiz eta toki edo girorik egokienean ez egon, musika baxuak eta piztuta zeukaten kandelak asko lagundu zuten. Gustura egon ginen, beraz, haiei entzuten; izan ere, oso gutxitan izan ohi dugu poesia entzuteko aukera. Ea berriro itzultzen diren.

L@s alumn@s de 2º de bachiller disfrutaron y aprendieron en un recital de poesía sobre poetas vascos de diferentes épocas, ofrecido en nuestra ikastola Oiartzo por dos jóvenes poetas.

ZER IZAN NAHI DUZU HANDITZEAN?

Hamaika aldiz entzundako galdera honi erantzutea ez da hain erraza izaten hemezortzi urte bete eta zure etorkizunerako erabakiorra izango den aukeraketa egin behar duzunean. Horregatik, zalantzak argitzen laguntzeko Euskal Herriko zenbait fakultetarako bisitak antolatu genituen batxilergoko 2. mailako gure ikasleentzat. Besteak beste, Gipuzkoako Kanpusa, Leioako Kazaritza eta Zientzietako fakultateak eta Deustuko Unibertsitateko Donostiako egoitza ezagutu genituen. Bisitaldi argigarriak, beraz, etorkizunean profesional bikainak izaten erakutsiko dieten fakultate hauetara burututakoak.

Teniendo en cuenta que l@s alumn@s de 2º de bachiller están a punto de decidir su futuro profesional, nuestra ikastola Oiartzo organizó varias visitas a diferentes facultades de Euskal Herria, esperando así aclarar las dudas de much@s.


"EMAKUMEOK, MUNDU BERRI BAT ERDITZEN" ERAKUSKETAN

Martxoaren hasieran 1. mailako ikasleak Oreretan antolatutako erakusketa hau

HAURTZARO INFORMATZEN



bisitatzen izan ginen. "Mugarik gabe" herrien garapenerako elkarlaguntzan ari-zen den gobernu kanpoko erakundeak antolatu zuen eta bertan, labirinto moduan, leku desberdinetako emakumeek beraiek



erakusten zituzten euren egoeraren zioak eta bizi duten errealitatea hormirudietako testu eta argazkien bidez. Izan ere, munduko bazter guztietan errealitate desberdinak bizitu arren, sexuagatiko bazterkeria kultura guztietan ageri da. Arazo honetara hurbilketa ikuspegi desberdinetatik egiten zen erakusketan: emakumeenganako erasoak, bazterkeria hezkuntzan, lanean, osasunean, emigrazioan... Gai interesgarriak, beraz, hausnarketarako.

L@s alumn@s de 1º de bachiller visitaron la exposición organizada por la ONG para la cooperación por el desarrollo llamada "Mugarik gabe" en la que se muestran los diferentes problemas de discriminación sufrida por las mujeres en todo el mundo.

4. MAILAKOAK UDALETXEAN

4. mailakoak "Oiartzun" gaia lantzen ari gara. Otsailaren 24an Udaletxera joan ginen. Han Xabier Landa zinegotziari galdera batzuk egin genizkion Oiartzuni buruzkoak, eta erantzun onak jaso genituen.



ITURENERA IBILALDIA

Aurten ere, otsailaren 1ean, Iturengo lhauteriak ikustera joan ginen.

Bertako zikinkeriarekin egindako karrozak, Ituren eta Zubietako zanpanzarrak ikusi genituen, eroak ere bai: gizon bat ipurdia erakusten, beste batek kaka aurpegia- ren aurrean jartzen zigun, eta akerrak denok lurrera botatzen gintuen.

Baina oso ondo pasa genuen.

LH 4. mailako ikasleak.



L@s alumn@s de 4º curso de la Ikastola Haurtzaro visitamos el Ayuntamiento de Oiartzun.



HAURTZARO INFORMATZEN

HAURTZARO MENDI TALDEAK HILABETERO IBILALDI ZORAGARRI BAT

Haurtzaro Mendi taldea aurtengo ikasturtean ere oso fin ari da eta hilabetero antolatzen du ibilaldi zoragarri bat. Hona ondoren, orain arte egindakoaren errepasoa:

Joan den **irailaren 20an** eman zioten aurtengo mendi irteerei hasiera. Igande hartan Aralar mendikatera inguratu ziren eta oso txango bikaina antolatu zuten. Larraitz izeneko parajetik abiatu eta **Larraone mendia** igo zuten 60 partaideek, eta ondoren Amezketa-ra egin zuten itzulia. Eguraldi bikaina izan zuten eta ederki asko aprobetxatu zuten egun erdia Aralar inguru hau ezagutzeko.

Oiartzungo Haurtzaro Mendi taldeak hurrengo astebukaerarako **II. perretxiko bilketa eta erakusketa** antolatu zuen. Horretarako, larunbata goizean, **urriak 24**, Ikastolaren aparkalekuan bildu eta Oiartzungo mendietara abiatu ziren, taldeak egin ondoren. Igandean, berriz, larunbatean jasotako perretxikoekin II. erakusketa antolatu zuten Oiartzungo Kontsejupean. Horretarako Aranzadiko Mikologia ataleko aditua den Lekuona jaunak sailkatuko eta izendatu zituen.

Aipatu behar da iazko urtean egin zela lehenengo ekitaldia eta oso balorazio bikaina egin zuela Haurtzaro mendi taldeak lehenengo esperientzia honen inguruan. Iaz hirurogei bat lagun bildu ziren guztira, eta Oiartzungo paraje ederretara joan ziren, hala nola, Oihanleku, Eskas, Urkabe... Bertan jasotako ikastolako jantokian jarri zuten erakusgai. Bertan izan ziren Aranzadi elkarte mikologia saileko adituak, perretxikoak izendatzen eta sailkatzen.

Azaroaren 22an, berriz, **Izazpira** joan zitzaizkigun Haurtzaroko mendizaleak. Zumaragatik abiatu eta Izazpe mendia (967 metro) igotzean, hainbat baserri eder gipuzkoar ikusteko aukera izan zuten, eta ikuspegi zoragarriarekin gozatzeko ere bai, batik bat Aizkorri, Anboto eta Aralar mazioen gainak. Ondoren, Antiguako ermita ospetsua bisitatu eta berriro Zumarragatik Oiartzun aldera itzuli ziren.

Abenduaren 20an, oporrak hartzeko garaian, gutxi gorabehera, eta Eguberrien usainarekin, urtean zehar egindako ibilaldi guztiei bukaera egokia emateko asmoz, **Arraskularre mendira** abiatu ziren, oso eguraldi txarrarekin, gainera. Bertan, eta urte-



ko amaierako festa moduan, guraso-sukaldari sutsu batzuek hamaiketako prestatu zuten, denen probetxurako. Arraskularrera joateko Karrikatik barrena igo ziren eta handik, hamaiketako egin ondoren Ergoien aldera jo zuten, jarraian etxera hurbiltzeko.

Urte berriari hasiera bikaina emateko asmoz, **urtarrilaren 24an**, Aizarnazabal aldera jo zuten eta bertatik Ertxina mendira igo ziren, paisaia ederrak ikusiz.

Otsailean, eskia kirola praktikatzeko eta ikasteko asmoz, ibilaldi zoragarri bat antolatu zuten Haurtzaroko mendizaleek. Iaz ez zuten zorte handirik izan elurrarekin, bitan bertan behera utzi behar izan baitzuten txango hau elurraren eskasiagatik. Aurtengo denon onerako, zorte hobea izan dute eta eskiaz gozatzeko aukera izan dute. Horretarako, Zuriza bailarara (Huesca) abiatu ziren, otsailaren 27an, goizeko 7etan. Bertan eguna Fondoko Eskia eginez igaro zuten. Horretarako, Errenteriako Urdaburu Elkarteko monitoreekin joan ziren, eta hauek izan zituzten maisu egun horietan.

Eguna eskiatzen eman ondoren, ilunabarrean Anso herrira joan ziren. Herria pixka bat ikusi eta gero, Linzako mendi aterpean afaldu eta lo egin zuten. Bigarren egunean, igandean, gosaldia ondoren, Linzan bertan aritu ziren eskiatzen. Bezperan ikasitako praktikan jartzeko aukera izan zuten, ares-tian aipatutako monitoreen laguntzarekin.

HAURTZARO INFORMATZEN



Bazkaldu ondoren, etxerako bidea hartu zuten eta ilunabarrerako Oiartzunen genituen gure artean.

Martxoaren 14an, zuhaitzak hostoz betetzen ari zirenekin batera, **txirrinda irteera** bat prestatu zuten. Iaz bizikleta-txango bat antolatu zuten, eta horretarako Irundik Elizondora joaten zen trenaren bidea hartuz, Endarlazatik Donezteberaino joan ziren, Bidasoa ibaia gertutik jarraituz. Aurtengoa, berriz, kontrako aldetik egin dute, iazkoa bezain alaia suertatzeko asmoz.

Apirilean, Aratz (1443 mto) aldera joko dute. Tontor hau Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako mugan dagoen karaitzezko mazizoren puntarik gorena dugu.

Ikasturte amaierarako ere izango dute beste sorpresaren bat ikastolako partaide guztiak txundituta uzteko. **Maiatzaren 22 eta 23an**, ikasturte bukaera ospatzeko, **bi egunetako egonaldia** prestatzen ari dira dagoeneko.

Benetan azpimarragarria Haurtzaro mendi talde hau egiten ari den lana. Talde honetan ikastolako gurasoak daude. Esan behar dugu Haurtzaro ikastolako ikasleak eta gurasoak ere oso pozik daudela hilabetero antolatzen diren ekintza hauekin. Jarrai dezatela bide honetatik.

El grupo de montaña de Haurtzaro lleva funcionando desde hace 4 años organizando unas salidas mensuales que son del agrado de buena parte de las familias de la ikastola. Durante el curso 98/99 he aquí el programa que están llevando a cabo:

- **El 20 de septiembre**, para dar comienzo a este curso, realizaron una salida a la Sierra de Aralar. Desde Larraitz subieron hasta **el monte Larraone**, para luego descender hasta Amezketeta.

- En **octubre** organizaron la **II recogida y exposición de setas**. Para ello el 24 de



octubre recorrieron diferentes parajes de Oiartzun, tales como Urkabe, Ohianleku, Eskas... para la recogida. Al día siguiente pusieron la exposición en los bajos del ayuntamiento, una vez clasificados y denominados por un experto de Aranzadi los hongos recogidos.

- **El 22 de noviembre** subieron al **monte Izazpi**, partiendo de Zumarraga. Posteriormente visitaron la famosa ermita de la Antigua.

- En **diciembre** organizaron una salida en Oiartzun, a **Arraskularre** concretamente, para después hacer un almuerzo de despedida del año en la sociedad de Artaso, en el barrio de Karrika.

- Para empezar bien el año, en **enero** la salida se hizo a un monte de Gipuzkoa, al **monte Ertxina**, partiendo desde Aizarnazabal.


- En **febrero** se organizó una salida al Pirineo oscense para practicar el **esquí**. Se alojaron en el refugio de Linza y con monitores expertos pudieron practicar el arte del esquí. Esta salida de fin de semana resultó un gran éxito, por lo que se volverá a repetir el próximo curso.

- En **marzo** pudimos participar en la plantación de árboles organizado por el Ayuntamiento por una parte, y por otra en una **salida en bicicleta** por el antiguo camino ferroviario de Doneztebe a Endarlatsa.

- En **abril**, subiremos al **monte Aratz** de 1443 mts. Esta cima calcárea se encuentra en la muga de Nafarroa, Gipuzkoa y Araba.

- Para finalizar el curso montañero con buen sabor de boca, ya se encuentra enfrascado el grupo de montaña en la preparación de una **salida de fin de semana** que se llevará a cabo el **22 y 23 de mayo**.





HAURTZARO INFORMATZEN

14



DBH 4. Mailako ikasleak "su berriaren" banaketarako ardagaiaren bila.
Recuperando viejas tradiciones!@s alumn@s de 4º de la ESO



Jaime Garcia matematikaria DBH 2. Mailako ikasleekin
El matemático Jaime Garcia.

HATZAK BETE LAN

GU ERE ARTISTA




Aurten, ikastolako txikienak artista bihurtu gara eta gaiarekin batera artelanak ere aztertu ditugu.

Lehenengo autorea, artista, aurkeztu, bere bizitza, bere lana..., ondoren, bere arte lana behatu dugu, pertzeptzioa landu dugu. Koloreak, formak, marrazkiak... hau guztia ikusitakoan gu ere arte lan bat egiten saiatu gara eta, a zer nolako lanak sortzen ditugun!

2. hiruhilabete honetan honako arte lan hauek ikusi ditugu:

- RUIZ BALERDI, RAFAEL: «PINTURA»
- VAN GOGH, VINCENT: «NIRE GELA»
- CALDER, ALEXANDER: «ITSAS PAISAIA» (MOBILA)
- KLEE, PAUL: «HAMMANT-EKO MOTIBO BAT»
- MARTIARENA, ASCENSIO: «PASAIA ELURTUA»
- KANDINSKY, WASSILY: «VIII. KONPOSIZIOA»
- MIRÓ, JOAN: «GOIZEKO IZARRA»
- ZULOAGA, IGNACIO: «GUINDO JAUNAREN UDAREAK»



WASSILY KANDINSKY, "VIII. konposizioa", 1923.

RUIZ BALERDI, RAFAEL

PINTORE GIPUZKOARRA (DONOSTIA 1934-ALTEA, ALACANT 1992).
ABSTRAKZIOAN ETA INFORMALISMOAN MURGILDUTAKO PINTURA EGIN ZUEN; ONDO EGITURATUTAKO KOLORE ETA FORMAK ETA TRAZU LABURREKO MIHISE (LIENTZOA) HANDIAK EGIN ZITUEN.

4


ARTELANA

"Pintura", 1980 RAFAEL RUIZ BALERDI



RAFAEL RUIZ BALERDI, "Pintura", 1980.

Durante este curso, l@s más pequeñ@s de la ikastola nos estamos convirtiendo en auténtic@s artistas. Esto se debe a que después de trabajado en el conocimiento de la vida y obra de diferentes artistas, hemos realizado nuestras propias obras de arte. Y...¡vaya obras!





TXINPARTERAKO IDAZTEN ZER DA FAG?

Udara bukatu eta azkenik ere hasi gara ikastolan. Burubelarri lan egitera gatoz.

Ikasturte hasiera da eta gauza berriak ikasten hasi gara; BUF ez dut tutik ere ulertzen.

Ostiral arratsalde bateko 4.30ak pasatxotan, tutoreak momentu bat geratzeko eskatu eta ikastolako eskaintza berri baten agerpena egin zidan: ikastolak beharra sumatzen duen ikasleari laguntza eskaintzeko aukera bat bazegoela ikustarazi zidan eta bertara joateko animatu ninduen.

Ni une horretan erantzuteko gai sentitzen ez nintzenez, alde batetik beldurra eta bestalde ezjakintasunaren ondorioz, 1. hiruhilabetearen klase normalak ematen jarraituko nuela erantzun nion.

Tamalez, iritsi zen hiruhilabetearen bukaera eta egia esan behar bada, ez nituen oso emaitza onak eraman etxera.

Oporrak pasa eta berriro ere ikastolara!

Emaitzen azterketa ondoren, aukera berri hori hartzea erabaki nuen. Egia esan, baneukan beldur pixka bat nire gelakideek niregatik pentsatuko zutenaz...

Baina iritsi zen momentua eta FAG gelara igo nintzen. Lanean hasi eta gelan egin izan ditugun jarduerak egiten ditugula ohartu nintzen. Hemen oso ondo pasatzen dugu, lan giro gozoa dagoelako, taldetxo bat garelako...

Beraz, proposamenaren berri izan eta hainbeste buelta ematen ari zaretenoi ez lotsatzeko eta ikasturtea aurrera ateratzen laguntzeko beste aukera bat dela adierazi nahi izan dizuet.

ANIMATU ZAITEZTE!!!

FAGEKO PROIEKTUA: SUKALDEA

Lehenengo hiruhilabetearen bukaeran funtzio anitzeko gelan sukaldean zerbait egitea proposatu ziguten bertako arduradunek. Menbriloa, mazapanak, trufak, kokoak eta turroia egitea pentsatu genuen, ikastolako Santo Tomas azokan saltzeko.

Sukaldean hasi aurretik errezetak idatziz, aztertu, osagaiak aukeratu eta bakoitzean behar zen kantitatea zehaztu eta aurrekontu bat egin genuen ikastolari dirua eskatzeko.

Dirua eskuratu ondoren behe-mailako ikasleak osagaiak erostera joan ziren. Ondoren sukaldean hasi ginen burubelarri: sagarrak zuritzea egokitu zitzaigun (20 kilo sagar), tartean sagar puskak jaten genituen baina menbriloa ere egin genuen.

Mazapan-maza egiten ere arituak gara eta irudiak egin, arrautzez margotu eta ondoren labean erre genituen, poltsetan sartu eta saltzeko prestatu.

Prezioak eta propaganda erabakitzea izan zen hurrengo pausoa.

Ikastolako maila ezberdinetakoak elkar-lanean aritu ginen.

Azoka egunean, produktu guztiak saldu genituen eta zor genuen diru guztia itzuli eta irabazia ere izan genuen. Eskerrak erosle izan zinetenoi!

Nik oso ondo pasatu nuen sukaldean aritu ginen egunetan, esperientzia polita izan zen; berriz ere horrelako lanetan gus-tura arituko nintzateke. Ea zer prestatu eta proposatzen diguten bigarren hiruhilabeterako?

HATZAK BETE LAN



HARIZKO ERAIKUNTZAK

Bosgarren mailako ikasleek, bigarren hiruhilabete honetan hariz egindako eskulan polit askoak burutu dituzte (eta jostorratzik gabe!), eta lan hauek egitearekin batera, bide batez, testu instruktiboak landu dituzte. Hona, segidan zeintzuk izan diren hasieratik bukaeraraino jarraitu dituzten pausoak eta zein material erabili duten.

MATERIALA

- Egurrezko ohol bat, alde bakoitza 30 cmkoa; zuk nahi duzun koloreko pintura; mantala (arropak ez zikintzeko); brotxa (egurra pintatzeko).

- Orri handi bat; arkatza; borragoma; 30 cmko erregela bat.


- 60 iltze txiki; mailu bat; ohol estu bat (iltzeak mahaian ez sartzeko).

- Kolorezko hari asko.

ELABORAZIOA

Lehenengo egurrezko ohola margotu, eta lehortzen utzi egun bat.

Ondoren orria hartu, bertan hiru lerro 30 cmkoak egin eta lerroaren hasieran marra txiki bat egin, gero 1'5 cmko tartea utzi eta 16 marra txiki egin.




Jarraian puntu txiki bakoitzean iltze bat jarri.

Geroago A puntutik B puntura pasa haria, iltze guztietatik.

Segidan C puntutik B puntura pasa iltze guztietatik.

Hurrena D puntutik E puntura pasa haria, iltze guztietatik.

Azkenik, F puntutik E puntura pasa haria, iltze guztietatik.



Eta hemen duzu zure HARIZKO ERAIKUNTZA!

L@s alumn@s de 5º han tenido la ocasión de hacer unos trabajos manuales estupendos a la vez que analizaban los llamados textos instructivos.



HATZAK BETE LAN

18

INGELERA




- Hello Kepa. Good morning!
- Hello Miren. Good morning!
- How are you?
- I'm fine, thank you, and you?
- I'm fine, thank you.



- Goodbye Kepa!
- Goodbye Miren!




But the school bell rang.
- Oh! School!
- Oh! School! ring!
ring!



HH ZOMORRO FESTA HAURTZARON



LH 1. ZIKLOA



ITSUEK ERA DANTZA EGIN DEZAKETE

LH 2. ZIKLOA




LH 3. ZIKLOA

Aska zazu aska zaitez
Zergatik ez?
Esan zazu esan baietz
Zergatik ez?
Euskal drag Queenak gaude hemen
Zergatik ez?
Euskal drag Queenak gaude hemen
NOSKI BAIETZ



Denak Walliren bila
dabiltza: Monstruoak,
poliziak, lapurrak, Pipi,
Man in black, eroak,
eskaleak ...



HATZAK BETE LAN

AUTOBIOGRAFIA



AUTOBIOGRAFIA

NI UDANE NAIZ. IZEN HAU
NIRE ABERAK AUKERTU BUEEN
GUSTATEEN ZIRE A I OLARD.
NIRE AITAK BESTE HIRU ICEN
BURUAN ZITUEN ITASO. IZARO OMAIERA
NIRIHALABRE HIRU BESTE BAT
GOSTATUKO LITZ AIDAKO HIRU.
NIRE GURASOEN IZENAK
JOSELUIS ETA AMAIA DIRA
RESIDENTEIA JAIONINTEEN.
1992KO OTAILAREN 29AN
JAIONINTEEN. BGTI OIRATEUNEN
BIZI LEANDUNAIZ.

-HIZKUNTEA GARAIAN GURE BIZITZA IDAZTEN ARI

GARA, JAIO TZATIK. HASI ETA GAUR EGUN

ARTEKO PASADIZUAK KONTATZEN DITUGU.

-GURE BIZITZAKO LEHEN URTEETAZ OROITZENEN

GARENEZ GURE GURASOENGANDIK JASOTZEN DUGU

INFORMAZIOA BERRIKIN HITZEGINEZ BIDEO ETA

ARGAZKIAK IKUSIAZ.

1960 MAILA

LOS NIÑOS DE PRIMER CURSO ESTAMOS RECORDANDO Y ESCRIBIENDO
NUESTRA BIOGRAFIA.







HATZAK BETE LAN

24

LH 2. MAILA

Oraingo honetan bidaiatzea pentsatu dugu. Ikasle bakoitzak leku bat aukeratu du eta hara joan ahal izateko premiazkoa den informazio bila ibili gara. Batzuek oso urruti joatea pentsatu dute: Txina, Nueva York, Ipar Poloa... baina beste batzuk hurbilago gelditu dira. Hori bai, denok zerbait gehiago ikasi dugu.

Esta vez hemos pensado viajar. Para poder hacerlo hemos preparado guías de viaje, buscando la información necesaria. Eso sí, en el proceso tod@s hemos aprendido algo más.



HATZAK BETE LAN

H.H.3KOAK SUHILTZAILE LANETAN

Sua eta beroa gaia genuenez eta ikasle baten aita suhiltzailea izateak ematen zigun aukera aprobetxatuz, Irungo suhiltzaileen parkera joan ginen.



L@s alumn@s de 3er curso de educación infantil visitamos el parque de bomberos de Irún.



KAMIOIKO ESKAILERAN
IGO GINEN.



UGRAEKIOLT
MANGERAREKIN JOLASTEN



UINAIE KIOAIUTN



GURASOAK JAKIN DEZAGUN

26

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAKETA

Segur aski, handik edo hemendik honezkero badakizue hezkuntza sistema aldatzen ari dela eta egitura eta curriculum berriak sortzen ari direla; prozesu edo aldaketa hau Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legean oinarritzen da (L.O.G.S.E.).


Orain, bada, bidean gaude, urratsak ematen ari gara, desagertzen ari diren hezkuntza egitura batzuetatik sistema berriak proposatzen dituen beste batzuetara igarotzen ari gara.

1970eko Lanbide Heziketaren kontzeptzioak eskola porrotaren tasa handiak ekarri ditu. Lanbide Heziketan hasten ziren ikasleen %50ak baino gehiagok hezkuntza sistema uzten zuten, lan munduan barneratzeko nahiko prestaketa lortu gabe. Orokorrean, Lanbide Heziketak maila baxua zuen.

Besteak beste, arazo hori konpontzera bideratu zen hezkuntza sistemaren antolamendu berria eta L.O.G.S.E. legeak jasotako Lanbide Heziketaren kontzeptzioa.

L.O.G.S.E. legeak ezarritako batxilergoan modalitate jakintzagaiak eta aukerako jakintzagaiak irakatsi beharko dira eta horietan gauzatuko da Oinarrizko Lanbide Heziketa.

Hona hemen hezkuntza berriaren eskema.



98-99 ko ikasturte honetan hezkuntza-sistema berri honen lehengo promozioa izango dugu. Une honetan 60 ikasle dira DBH 4 mailan eta maiatzeko hainbat eta hainbat aukeraren artean hautatu beharko dute, bai Batxilergoan, bai Maila Ertaineko Lanbide Heziketan nahiz Lanbide Hastapeneko programetan.

Erabaki hau hartu baino lehen DBH 4 mailako ikasleekin "Aukera egin behar dut" bokazio orientabiderako programa lantzen da tutoretzarako orduetan.

Programa honen prozesuaren eskema ondoren aipatzen diren zazpi urratsetan banatzen da:

- 1.- Zein da nire etorkizuna ikasle bezala?
- 2.- Ba al dakit zer gustatzen zaidan?
- 3.- Zertan moldatzen naiz hobeto?
- 4.- Nola definitzen dut nire nortasuna?
- 5.- Zein arloetan dut errendimendu hobea?
- 6.- Zenbat datu ditut? (aukera desberdinak)
- 7.- Eta orain zer?

Programa honen osagarri bezala dugu guraso eta ikasleei begira antolatutako hitzaldia martxoaren 2an. Hitzaldi honen hizlaria Jesus Cabrero izan zen, Hezuntzarako orientzaio gabineteko zuzendaria.

GURASOAK JAKIN DEZAGUN



GURASOEI EGINDAKO INKESTA (EMAITZAK)

Duela gutxi, urtarrian, galdeketa bat banatu zen ikastolako gurasoen artean. Txinpart aldizkariaren erredakzio taldeak prestatu zuen eta beraren bidez gurasoen iritzia jaso nahi ziren aipatu aldizkarirako.

Zehazkiago esateko: galdeketa bidez gurasoentzat gai gogokoenak zeintzuk ote ziren jakin nahi zen aldizkarian gurasoei bereziki zuzendutako atalerako, hurrengo aleetan apurka-apurka landuz joateko asmoz.

Iritzi hori jasotzeko, lagin baten gain egindako inkesta batera jotzea baino eman-korragoa ikusi zen guraso guztiei galdetzea. Eta hala, ikastolak ohiz erabili ohi duen bidea egin da galdeketa honetan ere bai, banatzeko, bai erantzunak biltzeko: ikastolako bulegoan prestatu eta, gelako irakasle/tutoreek ikasleen artean banatuz, gurasoei helarazi zaizkie eta bide beretik jaso ditu emaitzak erredakzio talde honek.

Gauzak horrela, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 391 gurasok parte hartu dute jarraian azalduko dugunez.


1. INKESTAKO PARTEHARTZEA

Jaso diren erantzunak 391 izan dira. Hau da, ikastolako adar zein maila batzuk eta besteetan parte hartzen duten gurasoen %88,06ak erantzun dio esku artean dugun inkestari.

Hori horrela, fidagarritasun handia aitor geniezaieke, inolako zalantzarik gabe, inkestan zehar islatzen diren emaitzei.


Gurasoek erakutsi duten partehartze horren jatorria aztertuz gero, hau da sail bakoitzak emaitzen osotasunean duen pisua, ehunekoetan adierazita:

Maila bakoitzeko erantzunak bertako guraso kopuruarekin alderatuz gero, berriz, partehartzea %100ekoa izan da LH-n eta DBH-n eta %46,82koa HH-n.



2. INKESTA ETA IKASTOLAKO GURASOEN HIZKUNTZ SOSLAIA

Inkestaren xedea izan ez arren, interesgarria da erantzunetako hizkuntz erabilerak adierazten duena ezagutzea, nahikoa adierazgarriak baitira familietako hizkuntz eza-gupenaz eta ohiturez —orain aztergai dugun seme-alaben hezkuntza gaietan, esate baterako— nabari den euskararen erabilerako ohitura edo/eta atxikipena neurtzeko. Izan ere batzuek euskaraz eta inoiz ekarpen berriak eginez erantzun duten bitartean, badira galdeketa elebitan jaso eta gaztelaniaz erantzun dutenak eta, hauen parean, baita euskaraz soilki erantzun nahi izan dutenak ere. Hona grafikoan gurasoek erakutsi duten hizkuntz erabilera:




Argi dago euskara dela ikastolan gurasoen komunikaziorako bide nagusia eta, segurtasun falta duten edota erabat euskaldunak ez diren kasuetan ere euskara izatera iristeko borondatea dagoela. Nabar-men dago, hortaz, ikastolak duen hizkuntza mailako erronka bat %15,85eko gutxiengo hori euskalduntzea dela euskararen nor-



GURASOAK JAKIN DEZAGUN

28

malkuntza erabatekoa laster batean lor dezagun.



Mailaz maila aztertuz, berriz, hau da hizkuntza aldetik ikastolak inkesta honetan erakutsi duen aurpegia:

3. EMAITZAK

Atal honen irakurketa hasi aurretik kontuan hartu behar da hau: partaidetzako eta erantzunetako kopuru globalak, ikus daitekeenez, ez direla berdinak. Erantzunetan atera diren zenbakiak askoz handiagoak dira. Honen arrazoia da galdeketa eskuetan jarri zitzaizkion ez zitzaizkion mugatu gurasoei zenbat erantzun aukeratu eta bakoitzak nahi bezainbat aukera egin zituela erantzuterakoan: bat, bi edota, inoiz, baita hirurak ere.


Dena den, erantzunak gehiegi barreia ez zitezten, bi aukera eskaini zitzaizkien gurasoei eta, era berean, ekarpen pertsonalik zutenentzat hirugarren aukera libre bat ere eskaini zitzaion, horrela emaitza orekatuak lortuko genituelakoan.

Mailaz maila aztertzen hasita, hona emaitzak.

3.1. Haur Hezkuntza

	KOPURUAK
1. Haurren integrazioa eskolan:	24 ERANTZUN
2. Adaptazioa eskolan: pausoak:	43 ERANTZUN
3. Besterik:	7 ERANTZUN

Ondorengo grafikoan ehunekotan bilduta ikus dezakegu:



Erantzunek nahiko argi erakusten dute gurasoek lehentasunezko gaitzat hartu dutela zehazki seme-alaben eskolako adaptazioa eta horretan jarraitu beharreko pausoak. Datu hau ez dute aldatzen lehen eta bigarren gaiak zein hirurak (iradokizun eta guzti eskainiz) aukeratu dituzten gurasoen erantzunek; nahiko gutxi izan dira hortik jo dutenak: guztira zazpi bakarrik: %9,45a.

Hirugarren puntua bere hartan zein besteren batekin batera aukeratu dutenek honako iradokizunak egiten zituzten:


- Irakurketa-idazketa prozesuak noiz hasi?
- Haurtzaindegia-ikastola: antzak eta aldeak.
- Haur hezkuntzako haurren ezaugarriak.
- Autoestimua.
- Fomentar los espacios de tiempo para el juego en la calle.

3.2. Lehen Hezkuntza

	KOPURUAK
1. Noiz jolastu behar dugu? TB, ekintza estraeskolarrak...:	107 ERANTZUN
2. Haurra-gurasoa: Erlazio afektiboa, noiz eta nola?:	133 ERANTZUN
3. Besterik:	22 ERANTZUN

Bestetan bezala, emaitzok grafikora pasata, hau da erantzunek erakutsi duten egoera:

GURASOAK JAKIN DEZAGUN



Boto gehien jaso dituzten bi aukeren arabera pentsa liteke horien inguruan fokalizatu dela gurasoen erdi bana eta bi hautapen-bloke daudela. Hala ere, argi dezagun ez dela hori hain nabarmena; honako datuak argituko digu: 48 erantzunek, hau da, %18,32ak lehen eta bigarren puntua edota, horiez gain, hirugarren bat ere aukeratu dituzte eta, beraz, gai bat zein bestea landu nahiko lukete. Honen parean, lehen erantzuna bere horretan aukeratu dutenak 56 izan dira: %21,37. Bigarrena beste aukerarik egin ez dutenak, berriz, 80; hau da: %30,53.

Erantzun multzo handia dabil aukera baten zein bestearen inguruan. Horrenbestez, zilegi da pentsatzea jolasaren gaia landu nahiko luketen askok gustura landuko luketela haur-gurasoen arteko harremanak ere eta alderantziz.

Erantzun batzuek, bestalde, lehentasunak ere markatzen zituzten, baina ez ditugu kontuan hartu galdeketa ez zelako eskatu eta, gutxi izateaz gain, emaitzak desitxuratu tuko lizkiguketelako.

Hirugarren aukeraren bat proposatu duen gutxiengoaren artean bada multzo nahikoa aipagarria (6 erantzun; hau da: %27,27) gai paretsua eskatu duena. Hona guztien ekarpenak, eta lehen-lehenik, nabarmendurik, aipatu ekarpen paretsua:


- Beren arteko harremanak: haserreak, inbidiak, mesprezuak, taldeko jolasak, liderrak... (6)
- Horario de salidas con amig@s. (2)
- Futuro escolar y preparación de l@os padres/madres. (2)

- Ikastolan etxeko lanei buruz dagoen planteamendua.
- Noiz oheratu haurrak.
- Lehen Hezkuntzako haurren ezaugarriak.
- Los mayores y las pagas.
- Irakasle eta ikasleen arteko erlazioa.
- Guraso eskolako gaien laburpenak eskaini.
- Ikas ohiturak, lan ohiturak.
- Baloreetan oinarritutako heziketa (nola landu etxean, eskolan errespetua, elkarbizikidetzatza...).
- Idatzizko lanak: txukuntasuna, letra argia, hauen garrantzia.

3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

KOPURUAK

- | | |
|---------------------------|--------------|
| 1. Sexu heziketa: | 61 ERANTZUN |
| 2. DBH bukatutakoan, zer? | |
| Aukera akademikoak: | 123 ERANTZUN |
| 3. Besterik: | 16 ERANTZUN |



Inkestaren une honetan, adieraztekoa da hemen gaudela gurasoen artean jakin-min handiena piztu duen gaiaren aurrean: DBH bukatutakoan, zer? Berak jaso du inkesta osoan erantzun guztien artetik atxikimendu handiena ehunekoetan eta ia-ia baita kopuruetan ere. Bigarren atxikimendu



zabalena jaso duen erantzuna (HH-ko bigarrena: %58), ordea, oso urrun dago kopuruari dagokionez: DBH-koen %61,5aren azpian 123 iritzi daude, eta HH-koen %58aren azpian, 43 bakarrik daude.

Hori esanda, aipatu beharrekoa da hemen ere LH-ko erantzunetan ikusi duguna bera gertatzen dela: ez dago jendearen polarizaziorik aukera bat edo bestearen inguruan, iritzien nahiko adostasun handia baizik proposatutakoaren inguruan. Bigarren aukerak alde handia ateratzen badio ere lehenari, horrek maila honetako gurasoen artean dagoen kezka adierazten du, ez aukera honen eskusibitatea.

Ikus dezagun: erantzunen %8,5ak bakarrik egin du lehen gaiaren aukera. 52 erantzunek, (%18,32) lehen eta bigarren gaia edota, aurrekoen gain, hirugarren bat ere aukeratu dituzte. Bigarrena beste aukerarik egin ez dutenak, berriz, 71; hau da: %35,5. Gurasoen erdiak baino gehiagok, beraz, lehen edo/eta bigarren gaiak lantzeko gogoia agertu du.

Hori guztia kontuan hartuz, zilegi da pentsatzea lehen gaia landu nahiko luketen askok gustura landuko luketela bigarrena ere eta alderantziz.

Proposatutakoaz gain beste zerbait adierazi nahi izan dutenek hau zioten:

- Lagunen arteko harremanak.
- Seme-alaba eta gurasoa: erlazio afektiboa, noiz eta nola?
- Ética, religión.
- Alimentación equilibrada.
- Calidad de la enseñanza y de las actividades extraescolares: parámetros...
- Drogamenpekotasuna.
- Betebeharrak-eskubideak.
- Informar sobre los desórdenes ocurridos en la ikastola, parque, comedor.

4. AZKENA

Ez dugu ondorioak ateraz bukatu nahi izan. Emaitzak hor daude eta bakoitzak atera ahalko ditu.

Txinparten ari garen gurasook ere arretaz irakurri ditugu. Begiratu diegu eta aurretzean ere begiratuko diegu... baita geure aburuz atera beharreko ondorioak aterako ere. Saiatuko gara, ondorio horiek erabaki zehatzetan gauzatu behar diren orduan, ahalik eta jende gehienari erantzuten. Poztuko ginateke lortuko bagenu.

Gurasoen partehartzea hain izan delarik bikaina, eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi. Mila esker.

Gure aldetik, saiatuko gara hurrengo aletik lantzen iradoki zaizkigun gaietakoren bat. Ez adiorik, beraz, hurrengo alean berriz ere elkarrekin izango gara.

Txinparteko guraso taldea

A la hora de dar cuenta en dos líneas a los resultados de la encuesta llevada a cabo entre l@s padres/madres de la ikastola, es de subrayar la alta participación que ha tenido en todos los niveles, lo que da mayor fiabilidad a la encuesta y es muestra, por otra parte, del interés que el tema ha suscitados entre l@s destinatari@s.

Creemos que con los gráficos y los números que acompañan a cada una de las preguntas quedan más o menos claros los resultados.

Ah, y gracias por vuestra colaboración. Desde el consejo de redacción trataremos de dar salida a las sugerencias que nos habéis hecho.

GURASOAK JAKIN DEZAGUN



KASKETAK - HASERREAK - MUGAK

Guztiok haserretzen gara, haurrak eta helduok. Nahiz eta noizean behin haserretzea normalizat jo, hori gertatzen denean gaizki sentitzen gara.

Haserretzeari dagokionez, haurra eta helduaren arteko ezberdintasuna honetan datza: Haurrak haserrea kontrolatzeko gaitasuna ez duenez, sentipen hori ekintzaren bitartez adierazten du, eta helduok aldiz, hasarrea kontrolatzeko gaitasuna dugula suposatzen da. Horregatik, helduok honelako egoeretan nola jokatu aldeztu aurretik pentsatua eduki behar dugu, haserre hori ez gailentzeko eta pentsatzeko gaitasuna ez galtzeko. Ondorioz, haurraren haserrearen aurrean, gehiegizko jokabidearen aurrean (kasketak, jotzea, haustea...) garrantzitsuena helduok adieraziko ditugun jarrera, ekintza eta ahazko erantzunak dira.

PATXARAZ, ERRESPETOZ eta modu HEZIGARRI batez erantzunez gero, egoera horiek bere onera egingo dute.

Helduok haurraren eredu garena ezin genezake ahanzi, beraien ispilu gara eta ondorioz, haurrak gure esanari baino jaramon gehiago egiten dio gure ekintzari, jokabideari. Gazteleraz esaten den bezala: "El mejor predicador Fray Ejemplo". Haur batek jo egin duelako helduak ipurdiko bat emanez erantzuten badio, haurrari zera adierazten ari gara esaten dugunarekin gure jokabidea ez datorrela bat, hau da, esandakoa eta egindakoa ez dela koherentea, haurrarentzat eredu bat dagoela eta helduontzat beste bat. Haurrak egin duen zerbaiten aurrean gure hasarrea gailentzen bada hitzez edo ekintzez, haurrari bere haserrea kontrolatzen ikas-teko eredu negatibo bat eskeintzen ari gara.

Haurrak segurtasunean hezitzeko mugak behar ditu, zer den ontzat ematen duguna eta zer ez. Baina helduok mugak jartzeko garaian, haurraren ona eta segurtasuna izan behar dugu helburutzat. Honela debekuak epe jakin batzutarako izango dira, haurrak ekintza hori segurtasunean egiteko gai izaterakoan altxako duguna. Noski, badira zenbait debeku, bai helduontzat bai haurrarentzat, betirako iraupena izango dutenak: Gezurra, lapurreta... Nola nahi ere, orokorrean esan genezake ATE BAT ISTEAN, BESTE BAT IREKI BEHAR DELA. Hau da kapritxo baten aurrean esan genezake "Gaur ez, baina igandean bai." Edo arriskuko egoera baten aurrean "Orain ez baina haunditzean bai".

Beste aspektu bat ERREPARAKETA da. Zigorra baina hezitzaileagoa erreparaketa sartzea

da. Haurrak helduon zigorra mendeku modura bizi du. Helduok, gaizki egin duen hori ondo egiteko aukera eskeini behar diogu haurrari. Honela zerbait hausten duenean berarekin batera konponduko dugu, zikindu badu garbitzea eskatuko dugu...

Bestetik haurrak ezetz esango dioten helduen premia du, bere gehiegizko kapritxoak ezetz esaten ausartuko diren helduak, argi, koherentziz, beraien nahietan urrutiegi joaten utziko ez dieten helduak, faltzuki beraiek agintzen duten sentsazioez jabetzen utziko ez dieten helduak. Haurrak heldu batengan bere konfiantza jarri dezakeela sentitu behar du, honek eutsiko duela, heldu hau sendoa dela. Horregatik ere oso inportantea da helduok haurraren sentimenduak jaso eta entzutea, konprenitzea. Honela gustuko jolasa uztea eskatu eta haserretzen denean esango diogu: "Bai, badakit amorrazioa ematen dizula hori utzi eta ohera joateak, baino orain garaia da". Era berean helduok leialak izan behar dugu eta haurrak arrazoia duenean eman: "Bai arrazoi duzu, gaur haserre nago nire gauzengatik eta nahiz eta zuek beti bezala portatu, gehitxo haserretzen ari naiz." HITZA BIOLENTZIAREN ANTIDOTOA DA.

Azkenik eta ez luzatzearen, oroitzen gisa arauen inguruko "dekalogo" doakizue:

- 1.- "El mejor predicador Fray Ejemplo". Gure autodominioarekin eredu izan.
- 2.- Ez inoiz haur bat umilatu, gaitzetsi eta hare eta gutxiago jende aurrean. ERRESPETOA. Ekintza juzgatu inoiz ez haurra.
- 3.- Gaizki eginga ERREPARATU
- 4.- Agindu baino lehen eskatu. Denbora eskeini haurrak sugerentzi hori onar dezan.
- 5.- Galerazten ditugun gauzak, uzten ditugunak baino gutxiago izan behar dute. Haurrak jakin eta sentitu behar du arrazoi bat badagoela debeku-muga hori jartzeko.
- 6.- Ez daudenak pakean utzi. Partaideen artean konponduko dugu gertatutakoa. Inoiz ez esan: Ikusiko duzu aitak jakitean" gure autoritatea ahulduz gain, bestea ez dagoena, leku deserosoan jartzen dugu.
- 7.- Zer egin ez badakigu, deus ere egin ez. Lehenengo pentsatu.
- 8.- Ate bat istean bestea ireki.
- 9.- Sentimendua entzun, jaso, konprenitu. Hitza jarri.
- 10.- Iraupena eta koherentzia.

Miren Garbizu, psikologoa



PELLO AÑORGARI ELKARRIZKETA

Galdera: Zein urtetan sartu zinen kontalarien munduan?

Pello Añorga: Orain dela 13-14 bat urte. Orain dela 15 bat urte, maleta zahar beltz batekin ibiltzen nintzen eta maletan nire ipuinak sartzen nituen. Nire gitarra eta beste tresna batzuekin gelaz gela joaten nintzen, haurrak txora-txora eginda utzirik, eta horrelako arrakasta lortzen zela ikusirik ba... erabaki nuen hemendik ere bizi daitekeela, eta orain dela 12-13 urte ipuin kontalaria izatea erabaki nuen.

G.: Zerk animatu zintuen mundu horretan sartzera?

P.A.: Normalean gauza askok animatzen zaitu. Baina bat, ni zoriontsu sentitzen nintzen ipuinak kontatzerakoan eta gero konturatu nintzen ipuinak kontatzen hasi nintzenean, ipuinen bitartez, kriptura guztiekin jarri nintekeela harremanetan. Ez pertsonekin bakarrik. Baita txoriekin, zuhaitzekin ere... Eta egia esan, oso esperientzia interesantea iruditu zitzaidan. Arrazoi horiengatik, eta gero, hirugarrena, zer esango dizut, ba, benetan komunikatzen hasten zarenean, nik uste dut, ba, ondo sentitzen zarela, hau da, arte ezberdinak badaude, eskultura, literatura... ba nik uste dut, kontalaritza eta idaztea ere beste arte bat direla, eta nik uste dut jendearekin komunikatzeko aukera eskaintzen dutela, estetika-ren bitartez, edertasuna erabiliz, momentu atseginak sortuz eta elkarrekin gozatuz, eta batez ere sentimendu ezberdinak espresatuz: tristurak, pozak, eta beste sentimendu guztiak. Arteak, besteak beste, nik uste dut, sentimenduak bideratzeko modu ona eskaintzen dizula, modu atsegina.

G.: Txikitatik al zenuen ilusioa ipuin kontalarien munduan sartzeko?

P.A.: Ez, txikitan ez nuen kontalaria izateko gogorik. Txikitan, gogoratzen naiz, izan nahi nuena medikua-edo zen. Asko gustatzen zitzaidan esperimenduak egitea. Gogoratzen naiz nola joaten nintzen drogeriara eta erosten nituen handik ba, kimikako produktua batzuk. Esperimendu kimikoak egitea gustatzen zitzaidan. Eta nik esan nuen, «honbre, kimikoa izan naiteke!». Eta orduan, medikuak eta horrelako profesioek asko erakartzen ninduten. Garai batean egon nintzen apaiza izatekotan ere. Beste garai batzuk ziren, noski. Baina ez, gero egun batetik bestera erabaki nuen majisterioa ikastea eta maixu izango nintzela. Eta irakasle nintzela, bururatu zitzaidan ba, ipuinak kontatzen hastea.

G.: Egiten al duzu beste lanik ipuinak kontatzeko aparte?

P.A.: Bai, idatzi egiten dut, Unibertsitatearekin kolaboratzen dut, eta hitzaldiak ematen dizkiet, gurasoei, irakasleei... Tailerrak, mintegiak, hau da, momentu hauetan merkatuan liburuak irakurtzeko ze gauza dauden eta beno, kritikak egin, irakurri eta hitzaldi asko eman izan ditut.

G.: Gustatzen al zaizkizu zure lanbideak?

P.A.: Bestela ez nituzke hartuko, noski. Nik uste dut lanbide hauek hartzeko, zure gustukoak izan behar dutela, ez baitago inor zure gainean. Hemen ez duzu gainean enpresariarik edo zuzendaririk edo... Zuk izan behar duzu zure buruaren jabe. Erantzunkizun guztia zuk hartu behar duzu, orduan, noski, nik uste dut garbi dagoela, gustukoa izan behar duela, bestela utzi eta beste gauza batean lan egin beharko zenuke.

G.: Non pasa zenuen hobekien ipuinak kontatzen?

P.A.: Zaila da, ahalegintzen naiz leku guztietan ondo kontatzen, baina ez da erraza. Baina oso zaila da leku bat esatea, pentsa, nik urte honetan bi mila eta piko saio egin ditudala. Urtero nik 2000 saiotik gora egiten ditut. Eta 10-12 urte hauetan, pentsa zenbat saio. Orduan non? Ba, Oiarzunen oso gustura aritu izan naiz kontatzen; batzuetan hobeto, besteetan okerrago.

G.: Oiarzundik aparte, zein tokitan kontatu dituzu ipuinak?

P.A.: Kanpoan, ba, Bartzelonan, Madrilan, Gualajaran, Avilan... Eta hemen, Euskal Herrian, ba, Gipuzkoan, nik uste dut herri guztiak pasa ditudala. Beno, izango da herriren bat edo beste pasa gabe, baina hemen inguruan, denak. Nafarroan asko ibili naiz, eta Bizkaian, zer esanik ez. Bilbon esaterako, asko ibili naiz. Bilboko ia eskola gehienak pasa ditut. Eta Bizkaian asko, ba, Urtuelan, Barakaldon, edo itsasertz guztian, hasi Getxotik, Sopelana, Urdutez, Bakio, Mundaka, Lekeitio, Zumaia, Deba, Orio, Hondarribiraino eta gero Donibane Lohitzune. Beno, leku guztietan izan naiz behin baino gehiagotan. Eta Iruñean ibili izan naiz, Orreagan, Tuteran, baita Lodosan ere. Bai, horrelako leku askotan.

G.: Ipuinik idatzi al duzu?

P.A.: Bai, baditut idatziak, bai. Argitaratuak 15-16 bat ditut, edo horrelako zerbait. Egon al zineten Oiarzungo aurkezpenean? Liburu bat aurkeztu nuen. Poesia ere egin dut eta gero ipuinak. Batzuk lirikoak eta beste batzuk komikoak. Komikoak hasieran asko egin nituen. Gaur egun uste dut gehiago egiten ditudala lirikoak, barneko sentimenduez eta horrelakoak.

G.: Idatzi dituzun ipuinetatik, zein da gehien gustatu zaizuna?

P.A.: Idazten dituzun guztiak, denak dira zure seme-alabak bezala. Sorkuntzak dira. Emakume batek haurrak dituen bezala, nik kasu honetan, haurrik ezin dut izan baina, sortu bai, kriptura handiak, seme-alabak dira. Zein maitatzen duzu gehiago? Bat ala bestea? Zaila da jakitea, bat agian momentu batean gehiago gustatuko zaizu bestea baino, edo ezaugarri batzuk. Agian batek, bihurria dela eta gehiago erakartzen zaitu, beste bat agian haserre-



tzen zaizu edo... Oso zaila da jakitea. Salmentei dagokienean, salduena, asko saldu dena, agortua dagoena, eta berriz berrargitaratuko dena, «Pottoko» da. Nik uste dut Pottokok arrakasta handia izan zuela. Batez ere «Pottokoren usainak» saldu zen. Baita «Antton, hiru oesteko bandidua»-k ere. Beno, arrakasta lortu zuten. Eta «Arrain gorria». Baina «Arrain gorria» oso berezia da, nik uste dut Arrain gorria gehiago dela helduentzat. Nahiz eta gazteen-tzako den sail batean atera, nik uste dut gehiago dela helduentzat.

G.: Idatzi duzun liburuetatik, kontatu al duzu noizbait?

P.A.: -Ez, normalean ez. Irakurri bai. Kontatu agian, puka batzuk, baina ez. Uste dut bi momentu desberdin direla.

G.: Nola aukeratzen dituzu zure ipuinetako ilustratzaileak?

P.A.: Beno, egia esan, orain arte ilustratzaile batekin egon naiz, Jokin Mitxelenarekin. Hemen, etxe ondoan jaioa da eta momentu honetan Alemanian bizi da, eta beti etortzen da hona. Hasiera batean, gogoratzen naiz, lehendabiziko liburuak ilustratzeko, orain oso aktore ezaguna denarekin, Ramon Agirrerekin jarri nintzen harremanetan. Serie bat eman zuten telebistan, «Goenkale» ez, beste bat, baserri batean... «Benta Berri». Horko nagusia, Tomas. Beno bai, Tomas, hori da Ramon Agirre, aktore izan baino lehenago, orain dela... Nik «Hola-hola, behin» idatzi nuen, liburuak itzultzen aritzen zen. AEKn klaseak ematen zituen eta beno, ilustratzen aritzen zen, saltxero handia baitzen. Eta esan nion eta «Bai, bai, egin-go diat!», eta abar. Eta berak egin zidan. Gero erabaki zuen aktore izatea. Badira ia urte batzuk.

G.: Ipuinak idazterakoan, zer da zailena egiten zaizuna?

P.A.: Idazterakoan, orain arte nahiko perfekzionista izan naiz. Orain ez hainbeste, baina, oso obsesioatuta nongoen gauzak ondo egitearekin. Horretan horrelako obsesio batzuk izan ditut. Baina bai, nik uste dut idazterakoan buelta asko eman behar dizkiozula. Beno, esatē baterako, hemen idazten ari naiz gauza bat eta hori ikutu dut, ba, zer esango dizuet ba, 200 aldiz! Bueltak eman eta utzi, berriz

hartu eta utzi... Beno, honekin esan nahi dut, denbora, gauzak egiteko, lagun izan behar duzula. Ezin da egiten hasi eta utzi jada. Argitaratu nahi baduzu, buelta asko eman behar dizkiozu. Badago oso hitz polita: «gozatu». Gozatu ez era kontsumistan, gozatu, ipuin bat kontatzean, zuk gozatuz, gozatuz, gozatuz edo idazterakoan, idatziz, idatziz, idatziz. Hitz asko kendu behar dizkiozu, jarri, tartekatu, erantsi...

G.: Nola lortzen duzu imajinazioarekin ipuinak egitea?

P.A.: Nik beti izan dut imajinazioa. Imajinazioarekin ez dut inoiz eduki arazorik. Etxean gauza asko exijitzen zizkidatenez, ba, arma bakarra nukan: imajinazioa, gauzak imajinatzea; eta imajinatzean, libreago sentitzen nintzen.

G.: Ba al duzu ohitura berezirik ipuinak kontatzera joateko?

P.A.: Normalean, kotxea hartu behar badut, abesten joaten naiz, ahotsa berotzeko. Eta gero leku batera joaten naizenean, leku desberdinak ikustea gustatzen zait. Eta leku bat asko gustatzen bazait, esaten dut ia han egin daitekeen kontaketa... Aurretik lekua «entzutea» gustatzen zait.

G.: Asko kostatzen al zaizu ipuinak kontatzea edo idaztea?

P.A.: Bai. Lehen komentatu dizuet, batek lana gustura egiten duenean noski kostatzen dela, baina esaera zaharrak dioen bezala: «Gustuko aldapan nekerik ez». Bai, hori esan dezaket.

G.: Bihurtuko al zenuke zure ametsen bat ipuin? Zergatik?

P.A.: Nik uste dut profesio hauetan, eta hau ez da nik esana baina, zure ametsen hurbiletik ibili behar duzula. Batzuentzat oso erromantikoa izan behar du honek, baina, nik nirea egiten dut, beti ametsetatik hurbil.

Egileak: Olaia Lasa
Oinatz Agirrezabala
Ion Uranga eta
Jurdana Martin

**Haurtzaro Ikastolako 6. mailako
C gelako ikasleak.**

L@s alumn@s de 6º curso de la Ikastola Haurtzaro, durante este segundo trimestre hemos tenido la ocasión de entrevistar a personajes, más o menos famosos, como es el caso de Pello Añorga, del cual hemos podido conocer que desde muy pequeño ha tenido mucha imaginación que le ha servido para adentrarse en el mundo de los cuentos. Hoy en día, nos cuenta, que disfruta mucho allí donde va, contando cuentos.



Komunikabide tailerreko kazetarion belarrietara gugandik hurbil gertatutako zenbait albiste garrantzitsu iritsi zaigu. Esan beharrik ez dago informazioa erabat fidagarria eta benetakoa dela, (albiste bati dagokion bezala) ala ez?

OLATU IZUGARRIAK

OLATU IZUGARRIAK IZUA SORTZEN ARI DIRA GIPUZKOAKO KOSTALDEETAN

Komunikabide tailerra/ Oiartzun. Azken bolada honetan olatu izugarriek itsasontzi asko hondoratu dituzte. Adituek diotenez olatu horiek Gipuzkoako kostaldeetako herri batzuetara iritsiko dira.


Pasaiaiko "Marero" itsasontzi famatua eta azken bi astetan hondoratu diren beste hiru itsasontziak ere olatu izugarrien eraginez hondoratu direla adierazi dute adituek, asko ikertu ostean. Olatu horiek 20-40m.koak omen dira.

Olatuak Pasaia inguruak deuseztuko ditu.

Olatuak kostaldera.

Asko ikertu ondoren, jakin dute olatu horiek kostalderantz hurbiltzen ari direla, zehazki Gipuzkoako kostaldeetara.

Hemendik bi aste barru edukiko ditugu hemen. Olatuak Pasaia inguruak deuseztuko ditu eta honen ondorioz Pasaia, Honda-



Olatuek eragindako euskal herri berria

rrabia, Donostia, etab...eko biztanleak Oiartzungo herrira etortzen ari dira.

Oiartzun herri berde polita, hiriburu berria.

Oiartzungo udalak ez du nahi zelai berdeak deuseztea eta horrexegatik lehen 1.000 pertsonei besterik ez diete utziko sartzen. Beste pertsona guztiek Frantziara joan beharko dute. Oiartzungo udalak autobus asko antolatu ditu beste guztientzat eta zerbitzu honexegatik Oiartzun izango dugu Gipuzkoako hiriburu berria.

OIARTZUNGO K.E.KO 1. KADETEAK «DESZENSON»

OIARTZUARREK IRABAZI BEHARREKO PARTIDUAN GALDU EGIN ZUTEN 3-1 BEHOBIA TALDEAREN AURKA

Komunikabide tailerra/ Oiartzun. 98-99 denboraldian gaizki hasi eta gero, bazurdi-zen zulotik ateratzeko gai izango zirela baina ezin izan dute. Entrenatzailearekin gora-behera batzuk eduki ondoren, honek kargua utzi eta beste bat jarri zen postuan. Berriarekin puntu zailak lortu zituzten baina, hala ere, azkenean zuloan geratu dira.



O.K.E.ko jokalaria.



Oiartzun kirol elkarteko 1.go mailako kadeteek oso liga gorabeheratsua egin ondoren, «deszenso»-ko liga txiki bat jokatu beharko dute. Hau dena hasieran edukitako entrenatzailearekin hasi zen. Berak ez zuen hamaikako egokia aurkitzen aldaketa ugari egin ondoren ere. Honek liga erdian kargua uztea erabaki zuen, ikusita taldeak ez zuela aurrera egiten.

Gabonetan entrenatzaile berria ekarri ondoren, hain zuzen Oiartzun K.E.-ko preferenteko jokalaria dena, nabaritu zen taldeak pixka bat gora egin zuela baina beharrezko baino gutxiago. Orain «deszenson», taldearen gorabehera guztiak alde batera utzi beharko dituzte eta serio jokatzeko hasi, liga txiki horretan azkenak gera ez daitez.

OIARTZUNGO AITON-AMONAK NASAREKIN EGUZKIRANTZ

ERRENDIMENDU PRESTAKUNTZA LANA MARTXAN JARRI DUTE

Komunikabide tailerra / Oiartzun. Duela sei hilabete Oiartzungo bailarara Ameriketatik izugarrizko berria iritsi zen eskutitzez. Bertan, 3. adineko ausartenek NASaren esperimentu batean parte hartzeko deialdia egiten zen. Hala, Oiartzungo hamaika zaharrek eman dute izena.


Oiartzungo hamaika aitona-amonak ausartek parte hartuko dute bidaia ia bueltaezin honetan. Ameriketako NASAkoen asmoa zera da: ingurugiroaren alde esperimentuak animaliekin egin beharrean, bizitzeko denbora gutxi falta zaien pertsona helduekin egitea. Horregatik iritsi zen Oiartzuna eskari bat laguntza eske. Izena emandako hamaika jubilatuek prestakuntza lanak berehala hasi dituzte jubilatuen etxeko bideogelan. Entrenamendua honetan datza: goizean goiz, zumitoxa bakarrik hartu ondoren, aerobik-eko ordu izerditsua bat, «baka4» musika barneratuz. Hau eta gero, bazkaldu, siesta egin (galdu gabe!) eta ondoren «Flotamiento» deritzan ariketa berria praktikatzeko dute. Ariketa hau, ipurtzulotik helizea sartu eta hegan egitea da; beraz, horrela espaziorako entsaiatzen dute. NASAkoek esan dutenez, «horrelakoa da bizitza, jantzi ezazu behar duzuna». Honekin ondoriozta dezakegu jantzia ere ez dela makala, baina daturik ez dute eman.

OIARTZUNDIK ESPAZIORA

Bidaia honi 2. milurtean emango zaio hasiera, justu hamabi mahatsak zaporeatu ondoren. Irteera NASAkoek Oiartzunen antolatu dute; horretarako Aiako Harriaren erabilera ezinbestekoa dute. «Dragon Khan»-en antzera, tontorretik tontorrera trenbidea jarriko dute, azkeneko tontorraren gorako aldapan bidea gorantz luzatuz. Helburua eguzkira bidaiatzea da, baina hori bai, arriskurik izan ez dezaten, bertara iristeko gaua izango da. Aitona-amonak izukaitz kuadrilan hauek ditugu: Prantxixka, Braulio, Krauxta, Bixente, Bixenta, Inozentzia... Inozentziarekin hizketaldi labur bat izan dugu eta hona hemen bere hitzak: «Guztiz esperientzia berria izan da niretzat. Okerrena helizearen, hasierako sarketa izan zen; orain ohituta nago eta ez da beste munduko ezer. Oso emozionatuta nago eta espero dut bidaia honek ondorio onak izatea gizadiarentzat eta horregatik gu bezalako zaharrak animatuko nituzke. Gora ekologistak!». Bukatzeko, gure jubilatuek zorte ona opatzeko eskatu digute buelta daitez.

«Flotamiento» ariketa burutzen aurkitu genituen Oiartzungo aitona-amonak.





NAHASTE BORRASTE



36

EZBERDINTASUNAK

Pailazoari falta zaizkion 5 gauzak aurkitu.




AURKITU ZAZPI EZBERDINTASUNAK




AURKITU ETA BOROBILDU

TXIMELETA - TXAKURRA - AHATEA




NAHASTE BORRASTE

JOLASAK



Nor da Nor?



■ Ea asmatzen duzuen zer
adierazi nahi den hemen :

H 6 K 25 L 14 I 20 B 32 R 18

A 8 S 10 E 16 U 12 T 36

Z 24 O 21




2x3 2x4 4x3 9x2 9x4 6x4 2x4 9x2 7x3

10x2 5x5 2x4 2x5 9x4 7x3 7x2 2x4 5x5

8x4 2x4 10x2

8x2 4x3 2x5 5x5 2x4 9x2 2x4 9x2 10x2



NAHASTE BORRASTE

38

KONTAKTUAK

Neska beltzarana eta gorputz lirainekoak, 11-12 urteko mutil politekin kontaktatu nahi-ko luke herriko plazan arratsaldeko 17:00 etan apirilaren 7an. Mutilek txupatxus batekin joan beharko dute. EZ ZARETE DAMUTUKO !!



Mutil kirolzaleak, futbol partido bat jolasteko gelditu nahiko luke kirol zale guztiekin. Polikiroldegiko sarreran 17:30 etan apirilaren 12an. ANIMA ZAITEZTE !!

Bi mutil ederrek, neskekin adiskidetu nahiko lukete edo zerbait gehiago egin neskak nahi dutenean. Kontaktatzeko: 901 49 12 32

NESKAK, MAITE ZAITUZTEGU !!

Norbaitek norbaitekin kontaktatu nahi badu, bidali zure eskutitzak DBH 3. mailara.

KOMIKIAK



Gaizka
Galdos

HIZKI ZOPA

O	S	A	S	U	N	A	L
T	N	F	X	K	S	T	E
H	Z	T	N	H	R	H	R
P	O	X	K	A	E	L	R
S	U	Z	B	K	M	E	E
T	L	I	E	A	P	T	A
B	E	N	I	M	O	I	L
S	E	V	A	L	A	K	A

Aurki itzazu futboleko 5 euskal talde.

-ERREALA

-ATHLETIK

-EIBAR

-OSASUNA

-ALAVES



Urtzi Argibay Euskaraokeko txapelduna

Zorionak guztioi!!!

hemen korrika lagun



martxoaren 19tik 28ra. iruñea-donostia



HAURTZARO
ikastola

